

Dialektologiaren metodologiaz ohar batzuk

Orreaga Ibarra*

Sarrera

Artikulu honen helburua da dialektologiaren metodologiaz ohar eta burutazio batzuk egitea. Asko dira, eta gehiago izango dira urte hauetan dialektologia alorrean burutzen ari diren lanak, gutxi, ordea, metodoaz arduratzen direnak. Horregatik, nire esperientzian eta beste lan batzuetakoan oinarriturik, lan honi buruz burutazio batzuk egiteko asmoa dugu. Ohar bedi, bidenabar, esperientzia handiena tesiaren bidez lortu nuela (ik. Ibarra 1995). Aipatu lan hau monografia bat da, Nafarroako euskalki bat aztertzen duena eta beronetan hizkuntzaren alor guztiak aztergai dira: fonetika-fonologia, morfologia, sintaxia eta lexikoa.

Gure abiapuntua izan zen eremu geografiko baten hizkeraren deskribapena egitea, Ultzamakoa hain zuzen ere, eta honen ondorioz monografia bat burutzea. Horregatik, ikuspuntu hau izango dugu abiaburu, alegia, hizkuntzaren atal guztiak aztertu behar duen ikerlariaren ikuspegia. Dударik gabe, hasieran, *Komunitatearen behaketa eta lan-hipotesia* planteatu behar dira, alegia, zein den eremua, zeintzuk isoglosa nagusienak eta zeintzuk hizkera horren ezaugarri nabarmenenak.

Hala ere, azpimarratu nahi dugu posible dela hasierako hipotesia birplanteatzea, datu-azterketa aurreratu ahala. Izan ere, honek eraman gaitzake, eremu geografikoa murriztera edo aukeratutako hitzunak aldatzera etab.

Beste aldetik, litekeena da gaiari hurbiltzea hipotesi orokor batekin, alegia, hizkera aurretik ezagututa, eta beronen bereizgarriak suposatuz.

Edozein azterketa metodologitan eman beharreko pausuez hitz egingo dugu hurrengo lerootan.

Hiztunekin hasierako harremana

Nola aurkitu hitzun egokiak eta nolako azalpena ematen diegun grabaketa justifikatzeko munta handiko arazoa da. Asko izan dira honetarako erabili metodoak. Bide

* Nafarroako Unibertsitate Publikoa. Filologia eta Hizkuntzaren Didaktika Saila.

bat da, besterik ezean, hiri edo herrietara joatea eta karrikan jolasean dauden umeei eskatzea gurasoei deitzeko, edota zuzenki beren etxeko ateetan jotzea izan da erabilitako beste bide bat.

Nolanahi dela ere, hiztunei esan behar zaie zein den elkarrizketaren helburua. Bide batez, hurbiltze honen bidez ikus dezakegu aukeratu pertsona egokia den ala ez, urte nahiko daraman han bizitzaren eta beste zehaztapen interesgarri batzuk. Era berean, ohartu behar zaio elkarrizketa grabatua izan den dela.

Izan ere, gerora arazoak ekar litzakeen kontu bat da gal daitekeela denbora franko, egokia ez den pertsona batekin hitz egiten. Dudarik gabe, komenigarria izaten da bertako batek sartzea giroan eta ikerlaria aurkeztea, horrela mesfidantza sor ez dadin; esaterako, herri txikietan egokia izan daiteke maisua, apezka edo sinederen baten bidez hurbiltzea.

Elkarrizketaren jardunari dagokionez, interesgarria dateke ikerlaria bere burua aurkeztea. Izan ere askotan sartzan gara bete-betean berriemaileen etxeetan inolako daturik eman gabe, ez nongoak garen ez zertarako egin nahi dugun ikasketa hori, ez eta zein den helburua eta zergatik heldu garen haiengana. Ohartu behar da askotan ez dela zilegizkoa hiztunari bizitzaren inguruko gauza guztiak galdetzea, guk gurea ixil-ixilik gordetzen dugun bitartean, honck mesfidantza sor baitezake.

Horregatik, komenigarria deritzogu gure helburua azaltzeaz gain, bizitza, eta jaioterriari buruzko zehaztasun batzuk ematea. Hori da gutxieneko baldintza haien etxean sartu behar badugu eta bertako gora-behera guztiak ikusteko parada izango badugu.

Hari honi jarraiki, familiakoaren arteko hartu-eman linguistiko berezkoak grabatu nahi baditugu, honako baldintzak kontuan izan behar ditugu.

Denbora

Jakina denez, elkarrizketa bat grabatzeak arazo batzuk dakartza, beronetan, berriemailea eta ikertzailearen arteko elkar-eragiketeta suertatu behar da. Iraupenari dagokionez, gomendagarria da 45 minutuko grabaketa egitea, kasetari buelta eman gabe.

Aintzat hartu behar da, euskarazko ikerketetan batipat, hiztun adintsuengana jo behar dugula, halabeharrez, eta denbora neurtu bat egon behar dela, gehienez ordu bat eta erdi, eta batzuetan gutxiago. Gertatu izan zaigu, maiz askotan, ordubete juxtu irauten zuten hiztunekin egotea, eta denbora hau pasa ahala, neketsu agertzen hasten ziren eta bukatzeko gogoz. Hobe da, hartaz, astunak ez izatea, hiztunak hurrengo txandan ere gustora har gaitzan.

Grabaketaren kalitatea

Bistan denez, batzuetan zaila suertatzen da giro egoki bat aurkitzea grabaketa egiteko. Berriemaileen etxean, askotan telebista paratua dago edota ume batek zaratak egiten ditu, eta maiz zaila suertatzen da ume hori isileraztea edota telebista itzaltzeko esatea. Hartaz, zein den ordurik egokiena galde dezaiokegu, zeintzuk diren hiztunaren ohiturak, lo-kuluxka bat egitea edo zein, horrela joaten zaren momentuan haiek ere ahal den neurrian prest eduki dezaten giroa.

Kalean edota lorategi batean eginiko grabaketak ez dira hoberenak, zaratak tartekatzen baitira; nahiz badakigun batzuetan giro naturalean egoteak hiztunaren jarrera lasaia izatera bultzatzen duela. Hala ere, soziolinguistikaren ikuspegitik kalean egin-dako elkarrizketei etekina ateratzen hasi zaizkie; bereziki ikerlariaren parte hartzea sortzen bada eta batez ere, gai direlako giro egoki, eroso eta natural bat sortzen.

Batzuetan –nahiz jokaera itxuraz, oso egokia ez dirudien–, posible da haren etxean entxufatzeko eskatzea, *minidisc* bat eramatekotan, pilak iraupen gutxikoak direlako. Azken finean, hobe da askotan “mutur” pixka bat erakustea, pilarik gabe geratzea baino, hainbat ibili ondoren grabaketa bat lortzeko. Hartaz, baliabide ona da sartu bezain laster non dagoen entxufeak ikustea eta ahal bada, horren ondoan jartzea. Txorakeri bat dirudien arren, erabat inportantea da alde praktikoari begiratzen badiogu. Hau konpentsatzeko moduaz, gero mintzatuko gara.

Arestian aipatu bezala, dialektologia-azterketetan komenigarria den grabagailua *minidisc* motakoa da. Informazioa era digitalean biltzen du, arina eta erabiltzeko erraza da eta ondorengo azterketa akustikoetarako informazioa prest uzten du.

Dudarik gabe, magnetofonoa eramateak abantaila batzuk dakartza, aspaldian Hammarström-ek aipatu (1976: 14) eta Caminok (1997: 66) berretsi zituenak:

- *Ez zaio berriemalari deus errepika erosten eta ez da nekarazten.*
- *Datuok beste ikerlari batek erabil ditzake.*
- *Hots nabarduren azterketa diakronikoetarako aukera berriak eskaintzen ditu.*
- *Ezin omen da hizketa errearen sintaxi azterketa exakturik egin beratu gabe, ezta gertakari suprasegmentalenik ere.*
- *Soziolektu eta dialektu desberdineko hiztunak biltzeko aukera ematen du.*

Hala ere, magnetofonoak ez du ziurtatzen transkribapen zehatza egiten. Izan ere, oharkabean normalizatze eta arautze berriak egin baititzake ikerleak, entzuten denetik pixkatxo bat aldentuz; bereziki hizkera menperatzen badu aurreiritziez baldintzatua dateke.

Ikerlariak sistema hau dela edo bestea dela, aldakuntza soziolektala edo dialektalaren inguruko galderak egiterakoan, ohartu behar da ateratako ondorioak ez direla errealitatearen zati bat besterik islatzen.

Gainera, anitzetan magnetofonoak harridura eta urduritasuna sortzen du eta berriemailea beste modu batez joko dezake haren aurrean. Hartaz, beronen mekanismoak ahalik eta gehien kontrolatzea ongi deritzogu, aurretik etxean egindako saio batzuen bidez, bestela, urduriago jar dezakegu berriemailea.

Biltzailearen inguruan

Biltzailea bertakoa bada, eta gainera herri berekoa, abantaila batzuk izanen ditu ikuspuntu tekniko eta praktikotik, baina arazoak ere bai. Ikuspuntu teknikotik, norberaren hizkerari buruz ikertzen bada, erantzun asko alde aurretik ezagutuko dira, eta bide batez, hipotesiak aurreratzeke ahalmena izanen dugu. Bestaldetik, berriemaileak ezagutzen baditugu hiztun-aukeraketa hobea egin dezakegu, baina, honek ez du esan nahi beti asmatuko denik.

Ikuspuntu praktikotik, berriemailea herri berekoa bada, badirudi ez garela bere intimitadecan hainbeste sartzen. Horretan erabat adierazgarri dira Baugh-en (1988: 176) hitzak: "The personal invasion of privacy that is the keystone of our profession".

Eragozpen handiena naturaltasuna lortzea izan ohi da; alde batetik, aurretik izandako harremana dela eta, herrikoa izateagatik estilo arduragabekoa erraztuko delako itxura ematen digu, eta ziurraski horrela da hein batean bederen. Baina, suerta daiteke, esaterako, fenomeno fonetikoan inkestan, biontzat ezagunak diren galdere-tan, aurreritziek eraman ditzaketela hiztuna atzera botatzera, eta horrela, naturaltasuna galtzera. Edo alderantziz, ezagun edo adiskide batekin suerta daiteke lanean ari denaren kontzientzia galtzea.

*Pons i Griera*k (1992: 71) dioenez, familiako hiztun ezberdinei egiten zaienean inkesta, komenigarria dateke interferentziak ekiditeko, bakarka egitea. Izan ere, hizkuntz-aldaketa uste baino handiagoa izan ohi da, baita familia bereko kideen artean ere; sexu-diferentzia dela edota adinarena, bat harritua geldi daiteke besteak emandako erantzunaz eta elkarren artean zuzentzen has daitezke.

Kontuan har bedi, Euskal Herrian egindako dialektologi-inkestetan hiztun adintsuak aukeratu izan direla. Neronek egindako tesi-lanean (ik. Ibarra 1995) eta baita Caminok berriki (1997) argitaratutakoan ere. Hauen arrazoiak hauexek dira: lehenik, hil hurren dauden hizkeretan, hiztun zaharrak dira hoberen gordetzen dutenak hizkeraren berezko ezaugarriak estandarrarekin hartu-eman gutxi izan dutelako. Bigarrenik, hiztun adinduak aiseago harrapatzen dira etxean.

Inkestak non egin planteatzen dugunean, dudarik gabe, lerkurik egokiena berriemailearen etxea bera da; horrela, giro erosoa sortzen da, eta hizkera naturala errezago aterako da ziurrenik.

Izan ere, asko dira han-hemen sakabanatutako adibideak, erakusten digutenak urduritasunarengatik, atlas bat egiterakoan, bi ordu hizketan eraman ondoren aho-tsa galdu eta erabat marrankatua gelditu zen hiztuna. Edota erantzuten zuen bakoitzean, mikrofonoan kolpe bat jotzen zuena, eta horrek izugarritzko zarata sortzen zuen. Mikrofonoa eusten bazitzaion, ordea, urduriago jartzen zen, azkenean inkesta egiteari utzi behar izan zitzaizlarik.

Beste batzuetan, gertatu da berriemaile berritsu eta adierazkorra hartzea telebis-tako programa batean ateratzeko. Kamararen aurrean eseritzeko momentuan, ordea, serio eta irmo agertzen zen, bestelako nortasuna adieraziz.

Atal honetan nabarmendu behar dugun alor bat da ikerlariaren ezaugarriak hiztunen aurrean; hala nola, adina, sexua, heziketa, maila sozioekonomikoa, ikerlariaren hizkera edota komunitatearekin duen harremana. Faktore hauek garrantzitsuak dira elkarrizketako partaideen artean sortuko den harremana zehazteko. Dudarik gabe, hemendik etorriko da grabaketaren arrakasta eta hizketarako aukeratzen den estiloa, hein handi batean bederen.

Arestian esan bezala, ikerlaria erkidegoaren partaile dateke edota kanpokoak; zalantzarik gabe bertakoa izateak ondorio ezberdinak ekarriko ditu, alde batetik bertakoak direnak eguneroko elkarrizketari gehiago hurbiltzen zaizkiolako. Esaterako, kode-txandaketa dagoenean, orduan nabaritzen da argienik nongoa den bakoitza. Euskarazko inkestetan, hitanoaren erabileran nabarmenluko litzateke egoera hau; baina honetaz gero arituko gara.

Esaterako, Monbasako swahilin, aditzaren denborazko morfema *-ni* da; honek seinalatzen du kanpokoezin izaten den komunikazio estiloa, baina hiztuna denean erkidego hortakoa, %90-etan izaten da *-a* morfema eta ez besterik.

Berriemaileen aukeraketa egitean, helburua baldin bada soinua batzuen ikerketa egitea, beraien ekoizpena eta baita hainbat fenomeno fonetikoren entzuteko ahalmena, komenigarria da bertakoa izatea. Dударik gabe, horrela hizkuntz gaitasuna erabatekoa izango da.

Baina, ikerlaria kanpotarra bada, hiru aukera ditu honen aurrean:

- Herrikoa egitea eta bertara bizitzera joatea. Hauxe da Caminok (1997) hartutako aukera. Izan ere, ikerlari askoren esperientziak dioenez bertakoen etxean bizi ez bazara, gauza anitz ihes egiteko arriskua dago.
- Herriko norbaiti erakustea alor-lana nola egiten den. Hau ez da, gure ustez, oso komenigarria, baina dialektologia lanetan erabili izan den prozedura da.
- Lana norberak burutzea, beti ere jakinez mintzaira ez dela inoiz herrikoa bezalakoa izango.

Baina, ez dugu ahaztu behar, jaioterriaz gain, badirela beste baldintza batzuk bortizki irudikatzen dutenak ondorioa. Baldintza sozialez ari gara, zenbat eta idurikoagoak diren ikerlariaren ezaugarri sozialak eta hiztunarenak, handiagoa izango da berezko eta arduragabeko hizketaren berri izatea. Jakina, adin, sexu, heziketa, janzkera, izakera, lanbide eta ekonomi-mailako ezberdintasunek atzera botatzen dute hiztuna, bereziki ikerlaria "maila handiagokoa edo jakintsuagoa" dela pentsatzen denean.

Elkarrizketaren partaideez den bezainbatean, solasaldia izan daiteke norbanakoa edota taldekkoa.

Elkarrizketa norbanakoa denean, ikerlariaren ardurak da beronen interesgarritasuna piztea. Elkarrizketa zailea ona dateke, baina horrela ez bada, biltzaileak saiatu behar du nahi dituen gramatika-egiturak ateratzen.

Taldekoko elkarrizketaren abantailarik handiena da hizketa naturala errazten duela. Ingurune honetan ikerlariaren partaidetza urria izan daiteke, izan ere hiztunek berek gida dezakete elkarrizketa, ikerlaria aurrean ez balego bezala.

Dena den, metodo honek baditu bere eragozpenak, abotsen pilaketak ilun baitezake transkribapen egoki bat. Beste batzuetan, bi edo hiru pertsonen monopoliza dezakete elkarrizketa. Esaterako, ohikoa da senar-emazteen arteko harremana dela eta, batek besteari zuzentzea eta ondoren, hauetako bat elkarrizketaren nagusi egitea, bestea itzaliz.

Helburuaren arabera gauza bat ala bestea da gomendagarrien, esaterako, helburua baldin bada hizkuntzaren elkar-eragiketa kontrolatzea, egokiagoa da taldea. Baina, helburua bada diskurtsoaren hainbat egituratan sakontzea, edota galdeketa fonetikoa egitea, errazagoa dateke bakarkakoa egitea.

Grabaketaren garbitasuna lortzeko, bi pertsona hizketan daudenean, litekeena da grabagailu estereo bat erabiltzea bi mikrofono kanpoan jarritz. Horrela, hiztun bakoitza kanal batean grabatuko da.

Elkarrizketa

Hiztunarekin egindako elkarrizketa izan daiteke zuzendua, erdi-zuzendua eta libre.

Elkarrizketa librean ikerlariak ez du inolako kontrolik egiten, ez gaien inguruan ezta hiztunen kopuru eta partaidetzan ere. Hau da bizpairu pertsonekin garatu ohi den formatua.

Bestaldetik dugu elkarrizketa zuzendua, honek hurrenkera bat segitzen du, eta aurretik markatutako eduki zehatza, denbora gutxienean, ahalik eta datu gehien lortzea baitu helburu.

Lehenengoaren garapena hau duteke:

- Hasierako minutuetan egokia da hiztunaren datuak lortzea: izena, adina, sexua, lana, familia etab. Horrela, elkarrizketa bezala garatuko dela hau ziurtatzen gara.
- Ondoren, zer galdetu behar dugun, zertaz mintzatuko garen saio honetan eta hurrengoetan, zeintzuk izango diren jorratu beharreko gaiak etab. argitzen zaie. Ohartu behar zaie inolako galdera zailik ez zaiela egingo, hori ez dela azterketa bat jakin behar baitute, eta agian, egunak pasa ahala eta konfiantza lortu ahala, gero eta gauza korapilotsuagoak galde daitezke. Baina, lehenik, dudarik gabe, croso sentierazi behar dugu hiztuna.

Ondoren, hiztunaren zaletasun edo gustoei buruz mintza daiteke, esaterako, zein haragi mota duen gustoko, zein edari... Edota, txikitari egindako gaiztakeri handienaz, gai hauetaz aritzeak giro egokian jartzen dute hiztuna hizketa naturala sortzeko.

Jakina, elkarrizketa librean ateratzen diren fenomeno asko ez dira galdetegi batean islatzen. Hizketa arinaren gora-behera batzuk –bokal arteko kontsonante zenbaiten galera, kasurako–, horrela eriden daitezke bakarrik:

A este respecto, cabe observar que uno de los fenómenos fonéticos que se consideran característicos del habla mexicana actual, una de sus más acusadas peculiaridades -la debilitación y aun la pérdida de las vocales átonas e inclusive tónicas- queda reflejada en nuestras grabaciones en su verdadera realidad, pero sólo asoma tímidamente en los cuestionarios o, en pocos casos, queda por completo oculta. (Lope Blanch 1985:403)

Erdi zuzendutako elkarrizketa.

Oro har, formatu honetan, elkarrizketa libre bezala zuzentzen da; baina garatzen den bitartean, gai batzuk tartekatzen dira, hauek aurretik hainbat forma gramatikalek erakutsiko dutelako aukeratzen dira. Honek suposatzen du aurretik horrelako gaitaula prestatzea elkarrizketaren gida gisa.

Askotan dira gara daitezkeen gaiak, batzuk unibertsalak dira, askotan elkarrizketa alai bat eragin dezaketenak: auzoa, lagunak, ohiturak, haurtzaroko oroitzapenak, ametsak, naturgaineko gaiak (mirariak, agerkundeak).

Gai-zerrenda hau prestatzea ez da erraza, helburua izan behar du elkarrizketaren egitura sakontzea. Honako hau duteke gai-zerrenda mota bat.

- Ikusi duzu edo egon zara istripu larri batean?
- Egon al zara inoiz egoera arriskutsu batean?
- Uste duzu eguraldia aldatu dela eta gero eta bero handiagoa egiten duela?
- Jaio zaren hiria aldatu al da honera heldu zinenetik? Eta auzoa, aldatua dago?
- Gaztea zinenean zure gurasoek zuk zeure semeak tratatzen dituzun bezala tratatzen zintuzten?

- Zure ustez oraingo gazteriak lehenago baino askatasun handiago du? Lehen baino hobeki jokatzeko dute?
- Zure ustez, eskoletako gaurko irakasleak lehenagokoak baino hobekak dira?
- Jolasak, ohiturak, jaiak, istripuak, gaixotasunak, patua, goitzenak.
- Hizkuntzaren inguruko galderak ere gomendagarriak dira. Esaterako: nola esan dezakegu batek besteak baino hobek hitz egiten duela?, zein nolako akatsak egiten ditugu hitz egiterakoan?, nortzuk egiten dituzte?

Hurrenkera hau proposa da berezko hizketa ateratzeko. Datu-pertsonalen galdeketa azkenerako uzten da, horrela, giroaren hastapenak ez dira oso formalak egiten, eta gero ere eragina izanen du honek.

Arazoei buruz hitz egitea ere egokia dateke jende helduarekin: arazo ekonomikoak, gaixotasunak, istripuak, borroka edo liskar bat, hilketak (lapurketak, bahiketak, drogak, erailketa). Gazte-koxkorrekin, ordea, egokia izan ohi da kirolei buruz hitz egitea eta baita guraso eta irakasleei buruz. Interesgarriak dira, esaterako, Caminok (1997:64) erabilitako gaiak Aezkoako dialektologi-azterketan, inkestaren zama sahiesteko helburuz. Honek ere *casual speech* delakoa zerabilen, horrela, euskararen aurkako politizazio handiak eraginik izan ez zezan elkarrizketan.

Gai-zerrenda hauek edo modulu hauek arrisku bat dukete, hauxe da: elkarrizketa inkesta bat bihur daiteke esperientzia gutxiko biltzaile baten esku. Hau gerta ez dadin, aintzat hartu behar da aurretik prestatu beharreko gaiak direla hauek, beronetan ikerlariak jakin behar du zeintzuk diren topiko hoberenak hitz egiteko, zein motatako diskurtsoa eragin dezaketen (deskribapenak, aspaldiko gertakizunen berriak e.a.), zein egitura gramatikal ager daitezkeen maiztasun handiagoz edo txikiagoz topiko eta diskurtsoaren arabera, eta azkenik, zein motatako estiloa eragin dezaketen gai hauek.

Beharrezkoa da zehaztasun hauek guztiak alde aurretik aintzat hartzea, grabaketak egiten hasi baino lehen. Izan ere, ikusten den bezala, ez elkarrizketaren diseinua, ez gaiak, ezta lekua ere, ez dira ikerlariaren nortasuna baino garrantzizkoagoak.

Arestian esan bezala, solasa gustokoa duen pertsona bat aukeratu behar da, izan ere, alde handia dago elkarrizketa gustokoa duen batek nola kontatzen duen pasarte bat, esaterako “ikatz nola egiten zen” edota beste konturen bat, edo “ziztu bizian” gaia garbitzen duen batek.

Nolanahi dela ere, errezeta zehatzak ezin direla eman uste dugu. Oinarrizko jokoerak ahulka daitezke, nolabait, elkarrizketa grabatuaren arrakasta ziurta dezaketanak. Hona batzuk.

- Ikerlariak elkarrizketan parte hartu behar du. Bere papera ez da galderak egitea soilik, erantzutea, iradokizunak egitea eta informazioa jasotzea ere bada.
- Ikerlariak aukerak utzi behar dizkio hiztunari solasaren haria aldatzeko eta gai berriak proposatzeko. Hau lor daiteke ixiltasunean egonez minutu batzuetan, etenaldiak eginez edota honelako esaldi eginak tartekatuz: *horrela, ba!; hauxe bizia!; bai, bai halako gauzak...!*
- Ikerlariak gustora eta eroso sentitu behar du grabaketa bitartean eta erakutsi behar du interesa duela. Hitz bitan, elkarrizketarako jokaera naturala eta egokia hartu behar du.

- Komenigarria da norberaren bizitzari buruz zerbait kontatzea, honek giro intimo eta pertsonala ematen dio elkarrizketari hitzuna eraginez eta bere buruari buruz hitz egiteko bultzatuz. Maiz askotan, ikerlariak kontatutako zerbaitek eragiten du hitzuna antzeko beste zerbait esatera. Kontatzeko modu hau horrela has daiteke: “Egun batez, esaterako...”, edo “Hau dela eta, kontatu behar dizut zer gertatu zitzaidan behin batean...”, “Neri behin batean...”.

Elkarrizketa zuzendu hauek egokiak izan ohi dira aldaera sintaktikoak bilatzeko, gehieneran zaila baita hauek jasotzea, dialektologian jakina denez, gutxitan sortzen baitira. Esaterako, *izan / egon*-en arteko txandaketa interesatzen bazaigu, egokia da etxearen deskribapena egiteko eskatzea.

Elkarrizketa librean ere pertsona baten deskribapena egiteko eska dezaiogegu. Esaterako, *nolakoa da Pello?, deskriba ezazu imajina ahal izateko*.

Estilo zaindurako Ordea, bestelako medotoak baliatu behar dira. Salaburuk (1984) erabilitakoari erreparatzen badiogu, honek *hitz-zerrenda* bat eman zuen modu lasaian ahoskatzeko, ondoren hitzez-hitzeko eta banan-banakako formakinak aztertuz, bokal azentudunak ongi bereiziz. Ohar bedi, bidenabar, ikerketa honetan denak gizonaekoa izan zirela, horrela formakinak errazago bereizteko.

Testu baten irakurketa ere medoto egokia izan daiteke guk nahi duguna ateratzeko. Beronetan item lexiko ezberdinak sar daitezke, testuaren osotasunari oztoporik jarriko ez diotenak. Testuaren luzera 100 eta 200 hitzen artekoa da, horregatik aurretik irakurtzea komenigarria dateke, bereziki heziketa handia ez duten pertsonekin. Testuaren edukia ere garrantzitsua da, gai familiarra edota interesgarria nahiago da, izan ere, helburua da irakurketa arin bat egitea, testuan ardura gehiegi jar ez dadin.

Hitz-zerrenda baten irakurketa

Hiztunak hitz isolatuak irakurtzen ditu, hartaz, berauetan jarritako ardura handiagoa da testu batean ezarritakoa baino. Zerrendaren hurrenkera antolatzen da, hiztuna ohar ez dadin ikertutako aldaeraz.

Esaterako, hona hitz zerrenda bat, non ikertu beharreko itemak –kurtsibaz idatzirikoak– besteekin nahasian agertzen diren. Hauetan [j]-ren ahoskera aztertu nahi da:

behia	<i>mutila</i>	<i>opile</i>	<i>bileta,</i>
zaldia	aurpegia	chun	aurkitu
<i>oiloa</i>	<i>ilea</i>	berrehun	lana
neska	<i>ispilu</i>	<i>mile</i>	<i>langile</i>
aïta	sukaldea	handia	
<i>iloba</i>	sua	<i>isile</i>	

Beste batzuetan «gutxieneko pareak» proposa daitezke, horrela ikertu beharreko gaia baldin bada [t]-ren ahoskera, suposatzen da ardura handiena jartzen dela irakurketa honetan. Hona batzuk.

<i>potoko</i>	<i>pottoko</i>
<i>maite</i>	<i>matte</i>
<i>tori</i>	<i>ttori</i>

<i>iturri</i>	<i>itturri</i>
<i>eiten</i>	<i>eitten</i>

Kasu hauetan edota antzekoetan, oso komenigarria da denbora ez galtzeko, erantzun posible guztiak apuntatzea eta momentu horretan, dena idatzi beharrean, erantzun bat azpimarratzea.

Azkenik, elkarrizketa bukatu ondoren komenigarria da -gure uste apalean- hiztunei sariren bat ematea. Askotan uste baino esfortzu handiagoa egin behar dute, eta horrek dudarik gabe, tentsioa sortzen du; gogora bedi, gainera beren intimidadeaz esandakoa. Honengatik guztiarengatik, konpensatzeko moduren bat izan behar dela uste dugu. Bide batez, opariarena hiztunaren "jakinduria" estimatzeko modu bat da, eta, horrela harro sentierazten ditugu.

Gainera dezadan, zenbait hiztun topatu dugula ez dutenak elkarrizketa egin nahi izan. Arrazoiak zen aurreko batek utzi zielako oroitzapen txarra, gehiegi estutu zuelako ez zekiena galdetzen ziolako etab.

Nire tesi-lanetik ateratako esperientzia

Hurrengo lerroetan nire esperientziaz baliatuko naiz oztupoak eta gora-beherak argitzeko helburuz. Esan behar da lehenik nire helburua monografia bat egitea izan zela, eta hartaz, hizkuntzaren alor gehienak aztergai izan nituela.

Lexikoa

Jakina denez, euskaraz, eta dialektologia orokorrean hiztun adintsuak hartzeko joera izan da; nik ere, horrela erabaki nuen, azterketa dialektologikoa interesatzen zitzaidalako eta ez soziolektoarena. Kasu honetan, esan bezala, hiztun zaharrak ziren hizkera hoberen mantentzen zutenak.

Lexikoaren azterketa egiteko EHA-n (Euskal Herriko Hizkuntz Atlas) oinarritu nintzen, hizkuntz atlaserako prest zegoen galdetegian, hartaz, liburuki horretan ateratako item asko baliatu nituen. Ez denak, hainbat eremu semantiko ez zirelako egokiak, esaterako, itxasoarena, arrainena, arrantza egiteko tresnena etab., edota zehatzegiak zirelako eta hiztunek erraz erantzuten ez zekitelako.

Horrelako galdetegi bat erabiltzearen hobariak anitz izan dira, batetik, eremu semantikoetan banatuta agertzen zelako, eta bestetik, bati bururatzen ez zaizkion galdera asko dagoeneko bilduak daudelako.

Nolanahi dela ere, maiz askotan, horrelako *galdera zehatzak* galdetzerakoan bada arrisku bat: erantzuten ez dakiten galderak egiten badizkiegu erantzun askotan porrot egin ditzakete eta, ondorioz, zapuzte uste bat sor daiteke hiztunarengan. Gure aburuz, hau ez da batere ona, horregatik ekiditeko modua hauxe dateke: galderak egin aurretik ongi aztertu zer galdezkatu behar den, hainbat item kentzeko edota eransteke. Era berean, posible da hasieran zati erakargarri bat galdezkatu, hiztuna gustokoa duena, eta konfiantza atxiki ahala, tartekatu zailxeago den batekin.

Esan bezala, ikerlariak jakin behar du gaiak aldatzen eta hau gertatuz gero, komeni da hiztunak gustokoa duen zerbaitez mintzatzea, bestela, elkarrizketaren eritimoa ere eror daiteke.

Hiztunaren sexu aukeraketaz den bezainbatean, saiatzen nintzen gai batzuk emakumei galdelatzek, esaterako, sukaldeko tresnen ingurukoak eta beste batzuk gizonezkoiei, kanpo eta alor lanetarakoak.

Gainerakoetan, beste hiztegitxo edo lexiko-bilduma batzuek baliatu nintzen. Esaterako, Leitzaren inguruan Dámaso Intzak egindakoaz edo Baztanen Mariano Izetak argitaragabeko lexiko zirriborro batzuek. Hauekin erabilitako metodoa zen galdetzea eta hitz horiek ezagutzen zituzten. Egia esan, berehala erantzuten zuten item hori entzuna zuten beste leku batean, batere ezaguna ez bazen edo han barra-barra erabiltzen zen. Horrela, beste modu batez inoiz aterako ez ziren hitzak lortu nituen.

Honainokoa laburbilduz, elkarrizketa librea baino zerbait gehiago eraman behar da item lexikoen bilketa egina nahi izan ezker. Zaila baita guri interesatzen zaigun guztia elkarrizketa batean lortzea.

Dialektologi-inkestetan, marrazkiak edo irudi-argazkiak eramatea izan da maiz erabilitako metodoa, bereziki, hizkuntz Atlasetako lexikoaren bilketan. Honek, ordea, desbantaile batzuk ditu, izan ere, batzuetan nolabaiteko kultura maila behar da marrazki bat interpretatzeko, are gehiago honek perspektiba zertxobait baldin badauka. Horrez gain, ea ezinezkoa da item adina marrazki, behar den bezala egitea.

Guk erabilitako galdetze sistemak bi ziren: lehena, lekukoaren hizkuntzaz baliatuz perfrasiak ematea eta bigarrena gaztelaniaz galdetzea zuzenki. Beti ere, aintzat harturik hiztunak gogokoa bazuen elkarrizketa, luzatzen uzten nuela, hura galdera-bateria bat bihur ez zedin: horrela, askotan uste ez genuen hiztegia edo sintaxi egiturak argira sortzen ziren.

Arestian genioenez, oinarritzko lexikoa lortzeko, galdeketa batzuk prestatzen dira eguneroko bizitzarekin lotura dutenak. Gero, ikerketaren arabera, galdeketa hori egokitzen da. Hona, esaterako, Etxebarriaren (1985) tesi-lanean erabilitakoa:

1. Gorputza
2. Elikadura
3. Jantzera
4. Etxea
5. Familia, bizitzaren zikloa
6. Osasuna
7. Auzoko bizitza. Aisa pasatzeko moduez
8. Hiria eta komertzioa
9. Garraioak eta bidaiak
11. Politika eta lana
12. Ogibideak eta lanak
13. Finantza-mundua. Dirua
14. Irakaskuntza
15. Eliza
16. Eguraldia
17. Denbora (kronologikoki)
18. Lurra
19. Barazkiak
20. Abeltzantza

Galdetegi horrek 615 galdera zituen eta 54 hiztunei pasatzen zitzaizkien. Jakina, galdera batzuek erantzun bat baino gehiago zuketean, horiek ere galdeketa sartzen

ziren. Galdeketaren arrakasra ziurtatzeko, kasu batzuetan “inkesta piloto” antzeko batzuk egin daitezke, horien bidez, hainbat galdera kentzen dira, beste batzuk erantsi eta behin betiko galdeketaren antolaketa errazten da.

Hizkuntz Atlasen bidez lortu datuak izan ohi da banaketa diatopikoa aztertzeko modurik egokiena. Gainera, hauetatik abia daiteke edozein azterketa eta ikuspuntua hartuz -dialektologikoa, fonerikoa, morfologikoa, sintaktikoa edota semantikoa- hitz bakoitzaren hedadura zehazki marrazteko.

Atlas batzuen antolaketa alfabetikoaren aurrean, beste batzuek eremu semantikoetan sailkatzearen alde egin dute. Azken hauek ez dira oso zehatzak izaten, inoiz ez baita jakiten non hasi eta bukatzen den eremu bat. Hala ere, berauen arteko loturak bilatzea ere ez da zaila izaten.

Bide batez esango dugu asko eztabaidatu dela Atlasen eta hiztegi bildumen arteko loturez. Atlasak ezinbestekoak dira eremu zabalak ikertzeko, eta eremu murritzagoetan oinarritutako monografiak, atlasek utzitako hutsuneak betetzera joan behar dute, inoiz ez hauek ordezkatzera.

Behin hitzak bildu ondoren honako azterketak burutu daitezke:

- *Lexiko-semantikoa*: Atlasetatik abiatuak, hitzunez erabilitako metodoak lexiko berria sortzeko, oposaketa lexikoak eta lexikalizazioak azter daitezke.
- *Alde dialektala*. Eremuaren sailkapena bideratuko duena. Horrez gain, sustrato, adstrato eta superestratoaren eragina zehaztuko duena.

Fonetika

Fonetikaren galdeketan saiatu behar da “soegilearen paradoxa” ez dadin gerta, hau da, hitzuna ahalik eta naturalen mintza dadin. Honetarako, biltzaileak bere hizkerari hurbiltzeko ahaleginak egingo ditu, lexiko estandarizatua ekidinez eta bertakoa erabiliz. Pridek dioen bezala:

We are then left with the observer's paradox: the aim of linguistic research in the community must be to find how people talk when they are not being systematically observed; yet we can only obtain this data by systematic observation (cf. Pride & Holmes 1972).

Batzuetan *extorsió* deritzan metodoa erabil daiteke: honen arabera, proposatutako hitzek euskara batuaren edo “hizkuntz estandarren” ebakera dute. Metodo honek zentzu handirik ez duela iruditu arren, aintzat hartu behar da hitzunik ez duela beti errepikatzen biltzaileak ematen dion forma berbera, aitzitik, azentuaketa eta ebakera berezkoa ematen dizkio.

Hala ere, hitzunez hiperzuzenketak egin ditzakete. Esaterako, *pagol bago* bikoitean *pag*o zela zioen hitzun batek, baina gero, elkarrizketa arruntean *bago* ahoskatzzen zuen. Hartaz, helburua baldin bada hizketa arduragabekoa azterzea, galdeketa arinean esandakoa, dudarik gabe, fidagarriagoa izango da.

Bistan denez, monografia batean edo doktorego-tesi azterketa akustikoa egin behar den ala ez aldeztu aurretik jakin behar da. Azterketa akustikoa soilik osa baidetzake “tesi” bat edo tesi baten zati handiena. Halarik ere, akustikaz balia gaitzke belarriaren bidez ilun gertatzen diren hainbat itemen azterketa egiteko.

Akustikaren bidez nola egin behar den azterketa bat ez dugu azalduko. Euskararako ereduak badira. Hona batzuk: Salaburu (1984), Pagola (1992), Pilartxo Etxebarria (1991), Maitena Etxebarria (1986) etab.

Morfologia

Ni neuri, eta, beldur naiz hitzunei ere beste hainbeste suertatu zitzaizela, alde astu-
nena gertatu zitzaidan.

Aditz morfologia

Ezinezkoa da aditz mota guztiak elkarrizketaren bidez ateratzea, hartaz, hutsune horiek betetzeko galdetegiez baliatu behar da.

Baina honek oztopo batzuk dakartza, izan ere, hitzun zaharrak aukeratzekotan, zaila da “yo a tí te he dado” bezalako galderen erantzuna lortzea, askotan “zuk eman direzu” erantzuten zuten. Izan ere, zaila zen hitzunari egoera horretan paratzea, gainera galdera oso kontextualizatua ez badago, ez diote zentzu handirik aurkitzen hori egiteari, “¿Pero, qué me has dado?”. Ondoren pluralean galdetzen bazenien erantzuna zen “ya te he dicho antes”. Izan ere, aditz jokuari baino gahiago arreta egiten zioten zentzu orokorrari.

Zer esanik ez, hitanoaz hitz egiteko, nahiz zu ezaguna eta konfiantza zertxobait izan, zaila zen haiek zuri hitanoan zuzentzea; gainera anitzetan emakumeak ziren nire berriemaileak eta denek ez zuten hori menperatzen. Hau guztia aintzat harturik, herri hauetako gazte bat (40 urte ingurukoa) hartu nuen berriemailetzat, euskaldun zaharra, baina bi errejistro aise menperatzen zituen: batua, alegia gramatika menperatzen zuen, eta bere herrikoa. Berriemaile honi egin nizkion nahi adinako galderak, bereziki aditzen kontu astun eta zail honetan. Horrela, zalantza kasuak argitzeko ere erabat baliogarria zitzaigun.

Ohartu behar da askotan ez dela beharrezkoa aditz-paradigma osoa galdetzea hitzunak sobera ez nekatzeko, adibidez pluralgilearen morfema ikertu nahi badugu, *nik eman dizkiot, zuk eman dizkiozu etab...* ikusten bada zein den morfema, aski da behin galdetzearekin.

Arestian genioenez, komeni da paradigmak erdi prestatuak eramatea, betetzen joateko eta ahalik eta lasterren bukatzeko.

Izen morfologia

Sail hau ere nahiko astuna suerta daiteke: izan ere “las manos del hombre” edo “las manos de los hombres” bezalako galderak ez zaizkie oso interesgarriak egiten. Baina, dudarik gabe, beharrezkoa da hori galdezkatzea, elkarrizketa arinean ez dagoelako modurik ezberdintasun hori markatzeko.

Atal astun hauek ekiditeko modu bat da egun bateko jardunean, galdeketak tar-
tekatzea, alegia, hiztegi pixka bat, aditz edo izen morfologia eta lexikoa. Gure elkar-
rriketatuak ere ohitu ziren erritmo honetara eta bazekiten bakoitzaren ondoren zer
zetorkeen.

Honaino ba, nire esperientzia alor honetan, dialektologia lanen bat egin behar
duenarentzat interesgarria izatea espero dudana.

Bibliografía

- AURREKOETXEA, G., 1992, "Euskal Herriko Hizkuntz Atlasaren informatizapena", in *Nazioarteko Dialektologia Biltzarra, Agiriak*, Iker-7, 319-763.
- BAUGH, J., 1988, "Beyond Linguistic Divergence in Black American English: Competing Norms of Linguistic Prestige and Variation" in A. R. Thomas (ed.), 175-186.
- CAMINO I., 1994, "Etzenike eta Aezkoako lekukotasun dialektologikoa", *Euskera* 39, 417-437.
- 1997, *Aezkoako euskararen azterketa dialektologikoa*, Nafarroako Gobernua. Hezkuntza eta Kultura departamentua.
- ETXEBARRIA, M., 1985, *Sociolingüística urbana. El habla de Bilbao*, Ediciones Universidad de Salamanca.
- ETXEBARRIA, P., 1991, *Zaldibiako eta beste zenbait hizkuntzatako triangelu akustikoen alderaketa*, in *Memoriae L. Mitxelena II*, 657-675.
- HAMMARSTRÖM, G., 1976, "The use of tape recordings in dialectology", *Orbis* XXV, 13-19.
- IBARRA, O., 1995, *Ultzamako hizkera. Anguruko euskalkiekiko harremanak*, Nafarroako Gobernua, Iruñea.
- LOPE BLANCH J.M., 1985, "Información fonética en los Atlas Lingüísticos", XVI *Congrés internacional de lingüística Filología Romániques*, 399-405.
- PAGOLA R. M., 1992, *Euskal fonetika Nafarroan*, 2 ale, Nafarroako Gobernua.
- PILCH, H., 1988, "Dialectology in historical grammar", in *Jacek Fisiak* (ed.), 1988, 417-442.
- PLOMTEUX, H., 1974, "Comptes rendus", *Orbis*, Vol XXIII, 235-236.
- PONS I GRIERA, L., 1992, *Indizació i apitxament al Vallés*, Barcelona, Instituto D'Estudis Catalans.
- PRIDE & HOLMES J.; 1972, *Sociolinguistics*, Penguin Books Middlesex, Berrarg. 1984 urtean.
- SALABURU P., 1984, *Hizkuntz teoria eta Baztango euskalkia: Fonetika eta Fonologia*, 2 ale, Euskal Herriko Unibertsitatea, Bilbo.
- SILVA-CORVALÁN, C., 1988, *Sociolingüística. Teoría y análisis*, Ed. Alhambra Universidad.
- SCHOUTEN M. & Van REENEN (eds), 1989, *New methods in Dialectology*, Foris Publications, Holland.

RESUMEN

El objetivo de este artículo es profundizar en la metodología adecuada para la investigación en la dialectología lingüística. El papel del investigador, el contacto con los hablantes, la conversación, las grabaciones y su calidad son los

objetivos de este trabajo. Asimismo se aborda de manera exhaustiva la forma de realizar los distintos cuestionarios posibles: el léxico, el morfológico, el sintáctico y el fonético. Para todo ello se toma como base la experiencia lograda en el trabajo de investigación llevado a cabo en la tesis doctoral, en el análisis del dialecto navarro del euskara de Ultzama.

LABURPENA

Artikulu honen helburua da dialektologiaren metodologiaz zertxobait sakontzea. Ikerlariaren papera, hitzuneekin izan beharreko harremana, elkarriketa, grabaketa eta beraien kalitatea dira lan honen ardatz nagusienak. Honezaz gain, zein datekeen galdetegi egokiena aztertzen da, hizkuntzaren alor ezberdinetan: lexikoan, morfologikoan, sintaxian eta fonetikoan. Honetarako, oinarritzat hartzen da doktoradutza tesian lortutako esperientzia, hain zuzen ere, Ultzamako hizkeraren azterketan.

PALABRAS CLAVE

Dialectología, Cuestionario, Metodología, Investigación, Dialectal, Dialecto vasco.

Dialectology, Questionnaire, Methodology, Dialectal investigation, Basque dialect.

Dialektologia, Galdetegia, Metodologia, Ikerketa dialektologikoa, Euskalkia.